

Modak itsutzen gaitu, eta eguzkitako betaurreko txarrek

48

Eguzkitako betaurrekoak

a



20 AZTERTU DITUGU ETA MERKEENEK ERE GAINDITU DITUZTE EGUZKI IZPIEN ETA IKUSTEZINAK DIREN IZPI ULTRAMOREEN AURKAKO BABES PROBA GUZTIAK

Denok dakigu eguzkitako betaurrekoak erosten ditugunean kalitatea ordaintzeaz gain, marka ordaintzen ditugula. Diseinuak, izenak garestitzen ditu marka ezagunen betaurrekoak baina, ze neurritaraino? Marken arteko prezio alde ikaragarria dago baina eta kalitatea? Eguzki izpien aurrean eskaintzen diguten babesari begiratuta ere, alde ikaragarriak ote?

Azterketa egiteko laborategira eraman ditugu prezio desberdinak dituzten hogeita betaurreko: merkeenak Mangorenak 12,90 eurotan eta garestienak Dior etxearenak, 286 eurotan. Zazpi betaurrekok zuten bigarren mailako babes (erdi ilunak: egun argitan kanpoan ibiltzeko nahikoa) eta beste hamahiru ziren hirugarren mailakoak (ilunak: itsasoan eta mendian erabiltzeko egokiak). Jantzi dendetan eta betaurreko dendetan erosita koak denak. Ez dira aztertu bat eta zero babes maila eskaintzen dutenak ia ez dutelako eguzki izpien aurrean

MARKA	Bershka	Ray Ban	Gucci	Gant
MODELOA	4609	3311	2930/S	Havasut SI-3P
PREZIOA (euro)	12,95	122,43	257,20	143
IRAGAZKI PROGRESIBOA	Bai	Bai	Bai	Ez
LENTE POLARIZATUA	Ez	Ez	Ez	Bai
TRANSMISIO-FREKUENTZIA (%)				
ARGIA (1)	27,4	28,2	32,2	18,8
UVA (2)	0,06	0,06	0,06	0,01
UVB (3)	0,08	0,01	0,01	0,01
KOLOREEN ARINTZE-KOEFIZIENTEA				
GORRIA	1,13	1,24	1	0,97
BERDEA	0,98	0,91	1,01	1,01
URDINA	1,14	0,95	1,08	1,02
HORIA	1,02	1,13	0,99	0,99
500 ETA 650 nm TRANSMISIO-FAKTOREA (%) (Semafoeren argia)	21,5	23,32	30,02	30,3
SENDOTASUNA				
MEKANIKOA	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia
SUARI ERANTZUNA	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia
ZAHARKITZEA (4) (%)	0,42	1,13	3,13	1,36

■ 2 Mailakoak
■ 3 Mailakoak

babesten eta lau mailakoak ere ez dira begiratu, ez dute gidatzeko balio, mendizaleentzat dira bereziak. Azterturiko guztiek betetzen dute betaurrekoei dagokien Europako Batasunaren arau zorrotza (EN 1836:2006). Eguzki izpien erradiazio ultramorearen kontra ia erabateko babesa ematen dute, gidatzeko egokiak dira eta erresistentzia probak gainditzen dituzte.

Gidatzeko edo paseoan ibiltzeko betaurrekoak bila dabilzanentzat Bershka betaurrekoak dira kalitate/prezio harreman onena dutenak. Bi mailako babesa dute eta merkeen zerrendan bigarren dira (13 euro). Babes gehiago behar duenak, hondartza edo mendirako Indo betaurrekoak aukera ditzake (69 euro). Hirugarren babes maila dute eta onenak dira eguzkiaren argitik babesteko, ikusten duguna gehiegi ilundu gabe.

Leiarren kalitatea

Azterturiko hogen betaurrekoek ez dute graduaziorik (teknikoki “zero potentzia optikoa” esaten zaio horri). Gant (bi mailako babesa) eta Polaroid (hiru mailako babesa) polarizaturuta daude. Hau da, zenbait angelutako distira kentzen dute.

Bershka, Mango, Ray Ban, Gucci, Guess, Dior eta Just Cavalliren leiarrak edo lenteak degradatuak dira (“progresiboak” deitzen zaie, baina ez dute zerikusirik graduatuta-

ko betaurreko progresiboekin). Halako betaurrekoetan leiarraren goiko aldea ilunagoa da. Beraz, zerumugara begira genezake argi askorekin eta era berean begirada jarri urbilago dauden objektuetara, argi gutxiago dutenetara (irakurtzeko, adibidez, erabilgarriak dira).

Ikusten dugun erradiazioa maila baten blokeatzen dutenez, betaurrekoek begien nekea lasaitzen dute eta hobeto ikusten dugu. “Transmitantzia” esaten zaio betaurrekoak pasatzen uzten duen argia kopuruari. Zenbat eta kopuru handiagoa, argi gehiago patsatzen uzten du. Ezin da objektiboki esan filtro ilunagoa hobea denik, bakoitzaren pertzepzioa dagoen argiaren eta geure begien sentikortasunaren arabera aldatu egiten delako. Bi mailako betaurrekoek argiaren % 18 eta % 43 inguru uzten dute pastasen. Hiru milakoek % 8tik % 18ra. Just Cavalli (% 36,6) eta Gucci (% 32,2) dira argi gehien pasatzen uzten dutenak baina onartutako mailaren barruan, beti ere. Indok (% 8,9) eskeintzen du babes handiena. Loewe (% 10,7), Massimo Dutti (% 11,3) eta Hugo Boss (% 11,4) ez dira egokiak argi asko badago edo argiak min ematen badigu. Bestalde, argiaren aurkako babesa ematea bezain garrantzitsua da izpi ultramore mingarrien kontrako babesa ematea. UVA eta UVB izenekoak daude eta lege araua oso zorrotza da bientzat, bereziki, UVB izene-

Guess	Dior	Just Cavalli	Indo	Springfield	Massimo Dutti	Hugo Boss	Oxydo	Tous	Loewe	Xdye	Mango	Oris	Furia	Carolina Herrera	Polaroid
GU6357	Diorio 2 LRVJN	JC1445 U32	5089 CA-1537	87254	4501 501	0063/5	X-Steel2 6LBN2	STO585	SLW276	XDM855	63634035	A126 COL01	SU4621	212-2388	4811
147	286,40	158,40	69	15,95	68,25	194,25	95,57	89	169	19,95	12,90	29,50	131	150	71,50
Bai	Bai	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez
Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai
25,2	22,6	36,6	8,9	12	11,3	11,4	13,3	12,2	10,7	15,7	16,1	16,8	12,8	16	15,3
0,03	0,13	0,07	0,01	0,02	0,01	0,01	0,01	0,02	0,01	0,03	0,18	0,01	0,04	0,02	0,02
0,06	0,09	0,11	0	0	0,01	0	0	0,01	0	0,01	0,08	0	0,03	0	0,01
1,23	1,32	1,4	0,91	1,14	0,94	1,13	0,98	1,59	1,05	1,12	1,36	0,9	1,17	1,07	1,05
0,97	0,92	0,89	1,09	0,98	1,09	0,98	1,04	0,82	0,96	0,99	0,95	1,07	1	1,01	0,96
1,23	1,11	1,01	1,33	1,17	1,3	1,12	1,22	1,03	1,15	1,08	1,35	1,10	1,29	1,14	0,96
1,03	1,11	1,17	0,88	1,03	0,88	1,04	0,95	1,27	1,04	1,02	1,06	0,93	1,02	1	1,05
20,01	17,45	29,89	6,30	11,25	7,72	10,54	10,40	8,14	9,32	14,48	10,95	13,41	10,96	14,39	22,88
Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia
Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia
1,31	4,74	2,65	2,44	1,91	1,25	4,32	2,76	6,46	2,38	1,79	2,84	0,59	2,27	2,66	2,52

(1) **Argiaren transmisio-frekuentzia:** Ikusten den argiaren transmisio faktorea da, EN 1836:2005 arauak definitzen duen bezala. Zenbat eta zenbaki txikiagoa eman, orduan eta gehiago babesten du argitik. (2) **UVA izpien transmisio-frekuentzia:** UVA eguzki-izpien transmisio-faktorea da, EN 1836:2005 arauak definitzen duen bezala. Zenbat eta zenbaki txikiagoa eman, orduan eta gehiago babesten du UVA izpien erradiazioetik. (3) **UVB izpien transmisio-frekuentzia:** UVB eguzki-izpien transmisio-faktorea da, EN 1836:2005 arauak definitzen duen bezala. Zenbat eta zenbaki txikiagoa eman, orduan eta gehiago babesten du UVB izpien erradiazioetik. (4) **Denboraren erasarnari eusteko gaitasuna:** Zenbat eta zenbaki handiagoa eman, orduan eta kalte gutxiago izango ditu denbora luze eta sarri-sarri erabili ondoren.

BANAN BANA, 20 BETAURREKOAK



**BERSHKA
4609**

Prezioa: 12,95 euro

Kalitate-prezio harreman onena. Iragazki progresiboa. Zaharkitzea lasterraragotu dugunean, emaitza onena eman dutenak.



**RAY BAN
3311**

Prezioa: 122,43 euro

Iragazki progresiboa. Bigarren mailakoan artean, UVB erradiazio gutxien pasatzen uzten dutenak dira.



**GUCCI
2930/S**

Prezioa: 257,20 euro

Iragazki progresiboa. 2 mailakoan artean UVB izpi gutxien pasatzen uzten dituzten artean daude.



**GANT
HAVASU
SI-3P**

Prezioa: 143 euro

Leiar polarizatua. UVA eta UVB izpi gutxien pasatzen uzten duten artean daude.



**DIOR
DIORITO
2 LRVJN**

Prezioa: 286,40 euro

Garestienak Iragazki progresiboa. Bi mailakoan artean emaitza kaskarrena eman dutenak zaharkitzea proba egin zaienean.



**JUST
CAVALLI
JC144S U3**

Prezioa: 158,40 euro

Iragazki progresiboa. Hauxek dira UVB eta argi izpi gehien pasatzen uzten dutenak.



**INDO
5089
CA-1537**

Prezioa: 69 euro

Aukera interesgarria. Hiru mailakoan artean, prezio-kalitate harreman onena. Argi eta UVA izpi gutxien pasatzen uzten duten artean daude eta UVB izpien kontrako erabateko babesa dute.



**SPRINGFIELD
87254**

Prezioa: 15,95 euro

UVB izpien kontrako erabateko babesa.



**HUGO
BOSS
0063/S**

Prezioa: 194,25 euro


UVA erradiazio gutxien pasatzen uzten duten artean daude. UVB izpiak erabat oztopatzen dituzte.



**OXYDO
X-STEEL2
6LBN2**

Prezioa: 95,57 euro

UVA erradiazio gutxien pasatzen uzten duten artean daude. UVB izpiak ia erabat oztopatzen dituzte.



**TOUS
STO585**

Prezioa: 89 euro

Zahartze proban emaitza kaskarrena eman dutenak.



**LOEWE
SLW276**

Prezioa: 169 euro

UVA erradiazio gutxien pasatzen uzten duten artean daude. UVB izpien kontrako erabateko babesa dute.



**MANGO
63634035**

Prezioa: 12,90 euro

Merkeenak. Iragazki progresiboa. UVA izpi gehien pasatzen uzten direnak dira eta hiru mailakoan artean gutxien babesten dutenak UVB izpien aurrean



**ORIS
A126
COL01**

Prezioa: 20,50 euro

UVA erradiazio gutxien pasatzen uzten duten artean daude. UVB izpien kontrako erabateko babesa.



**FURLA
SU4621**

Prezioa: 131 euro

Ez dute eman nabarmentzeko moduko emaitzarik.



**CAROLINA
HERRERA
212-2388**

Prezioa: 150 euro

UVB izpien kontrako erabateko babesa.



GUESS
GU6357

Prezioa: 147 euro
Iragazki progresiboa. Bi mailako artean UVA izpi gehien pasatzen uzten dituztenak.



MASSIMO
DUTTI
4501 501

Prezioa: 68,25 euro
UVA erradiazio gutxien pasatzen uzten dutenen artean daude.



XDYE
XDM855

Prezioa: 19,95 euro
Ez dute eman nabarmentzeko moduko emaitzarik.



POLAROID
4811

Prezioa: 71,50 euro
Leiar polarizatua

■ 2 Mailakoak
■ 3 Mailakoak

koentzat, mingarrienak direlako. Hogei betaurrekoek gainditu zuten egindako proba: erradiazio kaltegarri honen aurkako babes ia erabatekoa eskaintzen dute.

Betaurrekoak gidatzeko egokiak izateko, filtroa 0, 1, 2 edo 3 izan behar da (beraz, denek balio dezakete). Argiaren % 20 pasatzen utzi behar dutela esan nahi du horrek baina horrez gain, pasatzen den argia 500 nanometro (nm) eta 650 nm artean egon behar da. Hortxe daude argi gorria, berdea eta horia (semaforoaren hiru argiak). Gainera, gidatzeko betaurrekoek ezin dituzte koloreak gehiegi leundu. Aztertutako betaurreko guztiak baldintzak bete dituzte eta gidatzeko egokiak dira.

Betaurrekoek erori eta kolpeak hartzeko prestatuak egon behar dute. Zapalduaz gero nola eusten dioten frogatzeko 100 newtoneko indarra jasan zuten hamar segundutan, hautsi edo itxura galdu gabe. 650 gradutan zegoen hagatxo beroa ere jarri zen betaurrekoen gainetan, bost segunduz eta ez zuten surik hartu.

Betaurrekoen zahartzea lasterraragotzeko proba ere egin genuen. Betaurrekoak 25 orduz GANBERA berezian sartzen dira, eta jasan egin behar dute maila handiko argi erradiazioa zein xenon lanpararen erradiazio ultramoreaa. Zaharkitze horren ondoren bi mailakoetan ez da % 8 eta % 10 baino altuagoa den alderik nabaritu behar. Denek eman zuten emaitza egokia, baina ez maila berean. Tous (% 6,46) eta Dior (% 4,74) okerrago ibili ziren. Bershka (% 0,42) eta Oris (% 0,59) hobeto. Apenas nabaritu zen alderik proba egin bano lehen eta egin ondoren.

Kontsumitzailearen babesa

Saltzen diren objektu iraunkor gehienak itxitako paketeetan etortzen dira baina ez eguzkitako betaurrekoak. Saltzaileak eman behar diozkio kontsumitzaileari betaurrekoekin datozen beste guztiak: zorrotxoa, leiarra garbitzeko zapia, erabilbide eskuliburua eta garantia. Ba, Bershka, Xdye eta Mangok ezik, beste betaurrekoen saltzaileek ez zioten CONSUMER EROSKIko teknikariei erabilbide eskuliburua eman (edo beste betaurreko batzuen eman zieten). Betaurreko etxeen esanetan ematen dizkiete eskuliburuak saltokiei. Arazoa konpontzeko modu errazena, betaurrekoak behar den moduan pake-tean saltzea litzateke. Hori ez da egiten eta kontsumitzaileak betaurrekoen babesaren inguruko datuak nahi baditu, eskuliburu egokia exijitu behar du saltokian. ◀

✗ **Hogei eguzki betaurreko aztertu ditugu. Bigarren mailako babesa eskaintzen dute batzuk, kristal apur bat ilunak dituzte eta kalerako dira egokiak. Besteek hirugarren mailako babesa eskaintzen dute, kristal ilunak dituzte eta itsasoa edo mendirako dira egokiak. Hogei betaurrekoen prezioak oso desberdinak dira. Mangorenak 12,90 euro balio dute eta Diorrenak 286.**

✗ **Degradaturiko lenteak edo leiarrak dituzten etxeek (Bershka, Mango, Ray Ban, Gucci, Guess, Dior eta Just Cavallik) goiko aldean eskeintzen dute babes gehiago: urrunera, argi asko duen lekura begiratuko diogu eta baita urbilago dagoen objektuari ere betaurrekoak kendu gabe.**

✗ **Polarizatutako leiarrak (Gant eta Polaroid) zenbait angeluren distira kendu eta ikuspegi garbiagoa emango digute.**

✗ **Denak dira sendoak: 100 newton indar eginda ez dira apurtzen, ez dira erretzen gori-gori dagoen hagatxoarekin ukituta eta apenas zaharkitzen dira erradiazio maila handia jasan ondoren.**

✗ **Gidatzeko egokiak dira, argi gorria, berdea eta horia desberdintzen jakiteko argi nahikoa uzten dute pasatzen.**

✗ **Hiru dira kontsumitzaileak behar duen informazio guztiarekin datozenak baina ekoizleek saltokien errua dela diote.**

✗ **Bershkarena da kalitatea eta prezioaren arteko harreman onena. Bigarren mailako babesa ematen dute eta 13 euro kostatu. Hirugarren mailakoan artean hoberena Indo, 69 eurotan.**



Laburbilduz